

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea 2026ko aurrekontuari

Nik, José Ramón Molinuevo Lañak, Amurrioko Udaleko alkateak,  
hau jakinarazten dut:

Amurrioko Udalbatzak, 2026ko maiatzaren 28ko osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion 2026ko aurrekontu orokorrari (2026/1146 espedientea). Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15.1 artikuluan xedatutakoa betez, agiri hori hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean kontuhartzailetzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkez diezazkioten udalbatzari, aipatutako foru arauaren 17. artikuluan xedatutako eran.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da, foru arauaren 15.1 artikularen arabera.

Erreklamazioak aurkezten badira, Udalbatzak hilabete izango du erreklamazio horiek ebazteko, jendaurreko erakustaldia bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurrekontua behin betiko onesteko egintzan erreklamazioak ebazten ez badira, ez direla onetsi esan nahiko du.

Amurrio, 2026ko maiatzaren 29a

*Alkatea*

*JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*